

---

---

**GAURKO GAUZAK**

---

---

**NORKERIAK**

Nik ez nekian Laterri-Barruan ezbardinkeririk egoanik be, baiña atzerriko aldizkari baten irakurri dot Gasako Madrid'eko Gotzaiñak esan dauana: Katoliku bizien aurkako ezbardinkeria dagoala •oraingo sozialisten agintaritzapean.

Jazoera onek Kuba'n urte batzuk dirala jazoten zana gogoratzen dausku: Katoliku lez agertu eta bere burua ezagutzen ebana, bigarren edo irugarren mailiako erri-tarra zala.

Auxe jazoten da emengo laterrian, baita beste laterri askotan be.

Adibidez, erri-aurrean, laterri-maillan albiste-bideetan norki batzuk baztertuta aurkitzen dira katoliku diralako.

Erri kristiñauentzat jazoera ori lotsagarria dala diñogu, esaterako, errigintza ta gizarte eginbearretan ekiteko ez dirala sinistedun edo katoliku biziak esan eta jakinerazo bear dabe.

Gure egun oneitan euren burubide edo gogoeta onartzen ez dabenentzat, bide ori gat eta gogor egingo da.

**KRISTIÑAUEN ARERIOAK**

Batzuk beintzat egiz dira: Komunista Jainko-bakoak dira-ta, beti darabile kristiñautasuna aurrean eta eze-reztu guraz: Irakaskintzan, bildurra sartuz, askotariko erasoen bidez.

Ez dabe ondo eroaten erlejiño bizia daukanik eta kristiñauakaz ezelango artu-emonik gura ez daben are-rio benetakoak dira.

Gizabide ta zurtasunezko lege guztiai uts egiten dautsee.

Polonia'n abade ikasteko etxeetan 10.000 gazte dagoz, Europa'ko sortaldean eta Ipar-Ameriketan dagozan bai-ño geiago.

Txekoslovakian Eleizearen alde etenbako jokerea daukenak, gitxi-gorabera, 60.000 erritar dirala ikusten

dogu. Aberri orreitan gazteen artean edonon berbiz-kunderik indartsuenaren ezaugarriak agiri dira. Kristi-ñau katolikuen Jaungoikoaren sinistea daukela, Jainko-bakoen aurka agertzen dira.

\*

**ELEIZEAREN ETA JAUNGOIKOAREN LAGUNAK**

Gu geu arduratzen ete gara Eleizearen eta Jainkoaren lagunai begira?

Gure inguruko biztanleen artetik euneko bostek irakurten dabe astero zerbait erlejiño-gaiari buruz.

Nire ustez, egunkariak damoskuen argibidea ez da sinisgarria. Erroma ta Dublin dik datozen elez-giroko barriak eta albisteak, politika ta kiroleko barrien antzera, txikartuta agertzen dira.

Eleizearen irudia zentzunduna ta umekeribakoa izaten da, iñori kalterik egin barik esandako gauzak.

Eleizeak bere gizandi, ziñaldari ta santuak daukaz, bere andratasuna ta gizontasun gorengoa ta deuntasun agiria agertzen dauz eta gauza orreik egiztuta erakusten dira.

Gaurko munduak be santutasuna ta Jesukristo ta Jaungoikoaren ziñaldariak ugari daukoz.

Jaungoiko-zaleak diran eguneroko ta izparringiak mezu isillak agertu eta agerkarien gaisoak alboratu bear leukeez eta euren orrialdeetan onartu Jainkoaren seme-alaben talderik onenak egiten daben aukerratzte osoa ta Jesukristo'k betiko zorionera eltzeko bide artezez emoten dauskun poz-atsedena erakutsi.

Gizarte txautzaille ta iruntzikor onek eriotzara garoazan poz-zorion joankorra eskintzen dausku. Gure alkarte-bideak, izparringiak, irrati ta teleikuskiñak erlejiñoko albisteak erabilten dabez kirol eta politikako gai barriak zabaltzen dabezen antzera.

Gure kristiñauak alkarteen bear-izanik aundiena, dauke Jesus'en izenez ornidu ta atondurik, zelan aren irakatsiak gure biziera zuzendu bear daben jakiteko.

EGILUZE'k